

# NAFARROAKO TALDEKAKO XAKE TXAPELKETA

(Oinarri Teknikoak, Bigarren Mailan)

Taldeak: Mikel Gurea B, Donibane Kirol Elkartea B, Santa Ana B, Zaldi Beltza, Donibane Kirol Elkartea C, Obrena D, Oberena E eta Mikel Gurea C.

Kudeaketa tasa: 60 euro ordaindu beharko du talde bakoitzak. 2024ko azaroaren 2an jokatu den hirugarren txanda baino lehen ordaindu behar da. Bestela, taldea kanporatua izan daiteke.

Jokatzeko tokia etxeko taldearen lokala izanen da. Azkeneko txandan maila guztietarako egoitza bakarra izanen da, Iruñean, zehaztuko den tokian.

Itzuli bakarreko liga izanen da. Partida osatzeko 60 minutu izanen dira, gehi 30 segundo jokaldiko (lehenengo jokalditik aplikatuta).

Sei mahaitan jokatu dira neurketak. Etxeko taldeak zuriekin jokatu du lehenengo mahaietan, beltzeekin bigarrenetan eta horrela koloreak trukatu mahai guztietan.

2023-24ko denboraldian Bigarren Mailan jokatzeko eskubidea irabazi zuten zortzi taldeek osatuko dute, talderen batek uko egiten ez badu, edo diziplina zigorrik gertatzen ez bada. Inskripzio epea amaituta, plaza librerik balego aurreko denboraldiko sailkapenaren arabera beteko da, Lehenengo Mailan sartzerik lortu ez zutenen artean (jaitsitako taldeek lehentasuna izanen dute, beren postuaren arabera).

Taldearen inskripzioa Federazioari zuzendutako posta elektronikoaz egin behar da, 2024ko urriaren 9a baino lehen. Jokalarien zerrendak Federatuen Txokoaren bidez bidali behar dira. Jokalarien indarraren zerrenda bakarra, posta elektronikoz, 2024ko urriaren 15eko 12:00ak baino lehen eman behar da.

Talde parte hartzaileen zerrenda argitaratzea: 2024-10-10, 13:00etan.

Zozketa: 2024-10-11, 13:00etan.

Taldeetako jokalarien zerrendak argitaratzea: 2024-10-16, 14:00etan.

Lehenengo txanda: 2024-10-19, 16:30ean.

Bigarren txanda: 2024-10-26, 16:30ean.

Hirugarren txanda: 2024-11-02, 16:30ean.

Laugarren txanda: 2024-11-09, 16:30ean.

Bosgarren txanda: 2024-11-16, 16:30ean.

Seigarren txanda: 2024-11-23, 16:30ean.

Zazpigarren txanda, egoitza bakarra: 2024-11-30, 16:30ean.

Sailkapenak argitaratzea: 2024-12-03, 14:00etan.

Lehenengo Mailara igoko da hobekien sailkatutako bi taldeak, klubeko beste bi talde ez badira hor datorren denboraldirako sailkatuta.

Azken bi tokietan sailkatutako taldeak Hirugarren Mailara jaitsiko dira.

Torneoko zuzendaria: Aritz Idiazabal Troyas.

**2024-10-07.**

**Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.**